

Lehen mailako euskara metodoaren bizkarrezurra

Lehen urtea - CP

Urtean 5 garai dira.

Garai bakoitzean 7 aste : kodea eta paraleloki testuak (albuma, dokumentala...)

Ipuin batek, hotsen irakaspenak lotzen ditu. Ipuin hori metodoaren euskarria da.

Pertsonaia batzuek, letra guziak banaka ekartzen dituzte, abentura batzuen bidez.

21 zati dira. Letra bat : hitz erreferente bat, letra pertsonalizatuz.

Lehen garaia : 7 aste	(Omiasaindu arte)
-----------------------	-------------------

1 - Kodearen aitzinatzea : a, e, i, o, u. (berrikusketa)
z, x, k, n , an, en, in, on, un, l, al, el, il, ol, ul
2 hots edo hots bat aste bakoitz

Hots bakoitz :

- ipuinaren zati bat, literarioa eta laburpena
- hitz erreferente bat,
- jestu erreferente bat,
- olerki/kantu bat
- hotsa silaban, silaba berriak, hitz berriak
- hitz errepertorioa egin (**hiztegia**)
- erranaldi berriak ezagutzen diren hitzetatik abiatuz.

Olerki/kantuak:

A, a,a, maite maite dut aita...

Ai, ui, oi, sagarroi...

Zilo, zilo, zilotxo...

Arri, arri mandoko...

Oihanean nenbilen...

Gramatikako nozio bat :

plurala (**-k**) (ergatiboa) **-k**

noren, norekin (olerkiaren arabera)

Urtean 5 garai dira.

Garai bakoitzean 7 aste : kodea eta paraleloki testuak (albuma, dokumentala...)

Ipuin batek, hotsen irakaspenak lotzen ditu. Ipuin hori metodoaren euskarria da.

Pertsonaia batzuek, letra guziak banaka ekartzen dituzte, abentura batzuen bidez.

21 zati dira. Letra bat : hitz erreferente bat, letra pertsonalizatuz.

Lehen garaia : 7 aste	(Omiasaindu arte)
-----------------------	-------------------

1 - Kodearen aitzinatzea : a, e, i, o, u. (berrikusketa)
z, x, k, n , an, en, in, on, un, l, al, el, il, ol, ul

2 hots edo hots bat aste bakoitz

Hots bakoitz :

- ipuinaren zati bat, literarioa eta laburpena
- hitz erreferente bat,
- jestu erreferente bat,
- olerki/kantu bat
- hotsa silaban, silaba berriak, hitz berriak
- hitz errepertorioa egin (**hiztegia**)
- erranaldi berriak ezagutzen diren hitzetatik abiatuz.

Olerki/kantuak:

A, a,a, maite maite dut aita...

Ai, ui, oi, sagarroi...

Zilo, zilo, zilotxo...

Arri, arri mandoko...

Oihanean nenbilen...

Gramatikako nozio bat :

plurala (-k) (ergatiboa) -k

noren, norekin (olerkiaren arabera)

2 - Albuma: irakurketa/ulermena

album baten hautatzea. (ipuin gisa adib : *On dagizula, untxi jauna* edo *Panso* (Gatuzain))

Landu behar diren konpetentziak :

***Ahozkoa** : irudien deskribatzea, ulermenaren adieraztea, zati bat berriz formulatzea, liburu baten ezagutzea : estalkia, idazlea.

***Irakurketa** : ozenki irakurtzea (irakaslearekin batera)
testu edota liburu baten elementuen ezagutzea : izenburua, erranaldia, hastapena, bukaera, pertsonaiak.

***Idazketa** : talde osoan erranaldi baten egitea, eta ondotik erranaldi batzuen egitea irakaslearen laguntzarekin.

*** Hiztegia**: ikasi hiztegiaren erabiltzea, ahoz eta idatziz.

Bigarren garaia: 7 aste	(Eguberri arte)
-------------------------	-----------------

1 - Kodearen aitzinatzea: m t, r, rr, d, b, p, s, g,
es, as, is, us, os

Hots bakoitz:

- Ipuinaren zati bat : literarioa eta laburpena
- hitz erreferente bat
- olerki/kantu bat
- hotsa silaban, silaba berriak
- gero eta hitz berri gehiago

Hitz errepertorioa handituz doa, beraz ezagutzen diren hitzekin **erranaldi berriak** osatu behar dira.

Testu ttipi batzuk ere.

Olerki/kantuak:

Baga, biga...

Biper eta tomate...

Dilin dalan...

Pasa pasa pikondo eder...

Mendiz mendi...

dona dona...

Hiztegia: hitz berriak memorioan eman.

Gramatikako nozioa:

singularra / plurala: lore bat, lorea, loreak, lorea **da**, loreak **dira**

-an : etxean (non) **-ra** etxera (nora)

2–Irakurketa/ ulermena/ albuma

Dokumentala : (Adib. : *Hontza* Ttartalo)

Landu behar diren konpetentziak :

***Ahozkoa** : dokumentalaren ezagutza : estalkia, non zer, irudi edo argazkiak + legendak

- hautatu animaliaaren familia, **ezaugarriak**. (nola, non, zer ?)

- animalia buruzko beste liburuak (liburu sarea)

***Irakurketa** : irudi edo argazkiari lotu erranaldien irakurtzea, orrialdeen zenbakien irakurtzea eta Non-Zer-ekin loturaren egitea.

Testuen ozenki irakurtzea (irakaslearen laguntzarekin).

***Idazketa**: hitzen kopiazea, irudiarekin hitzen idaztea, erranaldi berrien idaztea. Testuaren erranaldi baten egitura errepikatuz, talde osoan testu baten idaztea, hitz berriak erabiliz.

***Hiztegia**: Gaiaren zabaltzea, adibidez, elikadura, animaliaaren familia, beste animalia batzuk, etab.

Hirugarren garaia:	7 aste	(Otsaila arte)
--------------------	--------	----------------

1 – Kodearen aitzinatzea: j, f, ñ, h
silaba luzeak: ain (orain), ein, (orein)
ts, tx, tz, tzen
pr, pl, kr, kl,

Ipuinaren zati bat, ondotik ipuintxoak ber pertsonaiekin.

J, f eta h letren inguruko olerki bana.

Hitz erreferenteen errepertorioa handitzen da.

Silaba eta hitzaren lantzea.

Hortik landa (silaba luzeak eta kontsonante dobleak) hitz berriak, eta **testu berriak**, hots berriak eta jadanik ikasitakoa erabiltzeko.

Inprimategiko letretatik kurtsibara buruz.

Olerki/kantuak:

Furra, furra fandangoa...

Buba ñiñaño...

Ahate urdina.

Otsoa uuuuh...

Kaderan, kaderan lumatxa....

Hiztegia: Olerkien arabera

Gramatika : ukan aditza : du, dute, ditu, dituzte

jín da, joan da **-tik** nondik, **-ra** nora

aditz aspektua : erraten du, erortzen da

2– Irakurketa / ulermena / albuma

Albuma hautatu (Adib : *Eskimalaren mezua*)

Ahozkoa : irudien deskribatzea, ipuinaren berriz kontatzea, esaldi zuzenak eginez, neguaren gaiaren inguruko hiztegiaren erabiltzea.

Irakurketa : ozenki irakurtzea, hitz berriak landu eta.

Irakurri eta, hastapenaren, pertsonaien eta bukaeraren ulertzea : Nor, Nork, Non, Noiz ?
galdeei erantzutea.

Beste liburu batzuen irakurketa entzutea.

Hiztegia : Liburuko hitzen berrerabiltzea

idazketa : Liburuan diren hitzen eta erranaldien kopiazea.

Erranaldi berrien egitea, testuetan diren erranaldien egitura berak hartuz.

Testu berri baten egitea (irakaslearen laguntzarekin).

Beste: Liburuaren gaiari buruzko olerkia

Laugarren garaia: 7 aste (Pazko arte)

1 – Kodearen aitzinatzea : tt, dd,
 -ez, -uz, -az, -oz, iz (berrikusketa)
 br, bl, tr, fl, fr,
 - entzat, -aren, -arekin

Olerki/kantuak :

Ez ezarri hatxerik...

Mattin, Kattin, Pettan, Antton...

Maddi eta Andde...

irakurketa : Otsailetik landa, irakurketa ez da gehiago ipuinean oinarritzen, beste testuetan (irakurgaietan) baizik. Pertsonaia berdinen beste abentura motz batzuk dira. Testu baten zatiak , 7 astez, ikasitakoaren erabiltzeko eta hots eta egitura berrien ikasteko.

Jarioaren bultzatzea : silabatik hitzera pasatzea.

Erranaldi motz baten osoki irakurtzea, ulermenaren segurtatzea.

Hiztegiaren aberastea

Gramatika : -iz (mendiz-mendi), -ez : egurrez, oz : osoz

norentzat, norekin, noren

aditzak iraganean : ukan, izan: zen, ziren ; zuen, zuten (narrazioari lotua)

Idazlanak : kopiazea, erranaldien osatzea, irudi batekin erranaldi baten ekoiztea autonomian.

Testu motz baten idaztea, euskarri batekin edo gabe (ekoizpenaren bultzatzea).

2 – Irakurketa / Ulermena / Aluma

Aluma hautatu (Adib : *Ahets Gaixto bat nere armairuan*)

Ahozkoa :

Liburu baten ezaugarrien adieraztea. Ipuinaren berriz kontatzea, erranaldi zuzenak eginez, eta gertaera guztiak kronologian erranez.

Non, Noiz, Nor, galderei erantzutea.

Hiztegi egokia erabiltzea.

Hipotesien egitea irudiekin erran-nahira heltzeko.

Irakurketa :

Irakasleak irakurritakoaren errepikatzea.

Orrialdeen erranaldien irakurtzea, autonomian.

Orrialdeka (edo orrialdeak hautatu liburuaren arabera) : testuaren eta irudiaren ezaugarriak, testuan elementuen xerkatzea (nor, noiz, zer, etab.), hitz ezezagunen lantzea.

Ulermena : gertaerak berriz erratea + idatzizko lanak (adib. : etiketak ordenan eman).

Hiztegia : izenak, izenondoak, atzizkiak (beldur-**garria**, eguzki-**tsua**)

Idazlanak : autonomian idaztea.

Narrazioa : beste bukaera baten idaztea, beste segida baten idaztea, irudien ematea eta testu baten idaztea.

Ametsari buruz baldin bada : irudi sekuentzialak, edo amets baten kontatzea.

Beste : gaiari buruzko beste liburuak, olerkiak

Bosgarren garaia: 7 aste	(Ekaina arte)
--------------------------	----------------

1 – Kodearen aitzinatzea :

Euskarria:

Irakurgai desberdinak : ipuin (narrazioa, fantastikoak...), dokumentala, olerkiak.

Hots guziak ikusiak dira, beraz, euskarari doazkion joskera elementuak hartuko dira hots sistematizazioaren lantzeko:

- **ari** (nori), (nor nori nork sinpleenak) diot, dizut
- **larik, -nean**, (noiz) delarik
- **lako** (zergatik), delako, duelako
- **la**: dela, duela

Erranaldiak : galderazkoak, harridurazkoak. (Albuma)

Gramatika: aipatu atzizkien araberako lana.

Hiztegia: irakurgaien araberakoa.

Idazlanak: irakurgaien araberakoak.

Urte bukaeran, helburua da autonomian testu ttipi bat, bizpahiru erranaldikoa, idazteko gai izan daitezen, kodea menderatuz eta joskera zuzenaz.

2 – Irakurketa / Ulermena / Albuma

Albuma hautatu: (adibidez : *Dogomuso neska ttipi*)

Ahoz : liburuaren ezaugarrien adieraztea

Hipotesien egitea.

Hastapenaren, gertaeren, bukaeraren, pertsonaien identifikatzea.

Gaia : Afrika. Zer dakigu? Kokapena, ohiturak, beste liburu, etab.

Irakurketa : ozenki irakurtzea zati batzuk (irakaslearekin partekatu).

Testu bakoitzean (orrialdeka) :

- nor mintzo den identifikatu
- hitz ezezagunak landu
- non, zer identifikatu
- berriz kontatu

Idazlanak : beste bukaera baten asmatzea.

Irudi baten deskribatzea, idatziz.

Ipuin kolektibo baten eraikitzea Afrika gai gisa hartuz.

Berrikusketak

Ebaluazioak

CE1 maila– Bigarren urteko urraspidea 36 aste

1 – Lehen garaia : Munduaren ezagutza testu motak ezagutuz
7 aste Omiasaindu arte

Irakurketak : ipuin zatiak, poesia eta poetari buruzko dokumentala, animalia bati buruzko dokumentala.

Idatzizko ekoizpena : istorioaren segida, testu poetikoa, animalia bat hautatu.

Hiztegia : testuaren arabera (sinonimoak, antonimoak).

Idazketa : kopiaketa, diktaketak.

Kodearen azkartzea : tz, tx, ts, na, an, en, ne...

Hizkuntzaren azterketa : letrak, silabak eta hitzak.

Erranaldia eta hitzak : zer den erranaldi bat, erranaldia eta lerroa. Puntua, maiuskula.

*Gai naiz..... isilean irakurtzeko,
hitz ezagunen dezifratzeko,
testu desberdinen konparatzeko,
erranaldia zer den ulertzeko,
hutsik gabe kopiatzeko,
liburu baten ezaugarrien ezagutzeko (idazlea,
titulua, estalkia...).*

2 – Bigarren garaia : Narrazio edo ipuin baten pertsonaien identifikatzea
Eguberri arte :7 aste

Irakurketak : mitologia, narrazioak, Olentzero, bertsoak, kantuak, olerkiak. Album proposamena (*Mattin salto, Olentzero*), pertsonaia baten definizioa hiztegian xerkatzea.

Idazketa: poesia baten kopiatzea, diktaketak, galdeei erantzutea.

Idatzizko ekoizpenak: irakurketen arabera idazlanak. Beste pertsonaia bat ematea, testu motz fantastiko baten idaztea (lamina, basajaun, etab.) Olentzeroren gutuna.

Hiztegia: irakurketen arabera.

Kodearen azkartzea/ortografia: r, rr, tr, fl, gr hots bikoitzak, alfabetoa, ordena alfabetikoa.

Gramatika: pertsonaiaren identifikatzeko ergatiboa “-k”.

Noren, norekin, nori, norengana

Singularra, plurala, (sorginak, sorginek, du, ditu.)

Izenordea : hura, hark

Izengoitiak

Izenak eta izen arruntak bereiztea. Maiuskula non?

*Gai naiz..... Isilean irakurtzeko, hitz ezagunak dezifratuz
pertsonaien identifikatzeko, izenordeekin ere.
Testu motz baten idazteko, ortografiari kasu
emanez eta erranaldi zuzenak eginez.
Sinonimoen emateko.
Deklinabide batzuen eta izenordeen erabiltzeko.*

3 – Hirugarren garaia : Narrazio edo ipuin bateko gertaeren,
kronologiaren eta tokiaren identifikatzea
Otsaila arte : 8 aste

Irakurketak : ipuin klasiko zatiak, narrazioak (Lierni bezala), egunkari zatiak, artista baten bizia, etab. liburu bat (2 aste gehienik).

Idazketa : kopiaketa, irakurketei buruzko ariketak. (galderak, informazioaren xerkatzea)

Idatzizko ekoizpenak :

ipuin baten 3 zatien arabera idazlanak proposatu (hastapenaren edo bukaeraren asmatzea, testua ordenan ematea, testu baten ekoiztea), ortografia, sintaxia eta aurkezpena zainduz.

Hiztegia : sinonimo, antonimo, hitz familiak, lokailuak (bat-batean, gero, ondotik...) denborazko hitzak (duela aspaldi, orain, bihar...) hiztegietan hastea.

Ortografia : aditzaren eta aditz laguntzailearen bereiztea, 3 letrako silabak (ahantzten), s, st (hestea) ts.

Gramatika : lehenago, orain, gero : aditzen denbora, ukan/ izan : nuen, nituen nora, nondik.

*Gai naiz..... testu luze baten irakurtzeko,
gertaeren kronologia identifikatzeko,
testu narratibo motz baten idazteko, loturazko
hitzen erabiltzeko, sintaxia zuzenaz iraganaren
erabiltzeko.*

4 – Laugarren garaia : Elkarrizketako egoeren ezagutzea (Pazko arte 6 aste)

Irakurketak : testuak elkarrizketako egoerekin (telefonoz, etab.) komikiak, antzerkiak, olerkiak, galdera/erantzunekin.

Idazketa : kopiaketa, puntuazioa ontsa erabiliz (? ! .) eta maiuskula emanez ondotik.

Idatzizko ekoizpena : elkarrizketa batean ematea, pertsonaia baten erantzun/galdeak asmatzea. Komiki baten burbuilen betetzea, irudiekin elkarrizketa osoaren asmatzea. Ipuin baten hastapena emanez elkarrizketaren asmatzea.

Hiztegia : elkarrizketa aitzineko aditzen ezagutzea : erran, galdegin, oihukatu, erantzun, etab.
Izenak, izen arruntak.

Ortografia : hitzak alfabetikoki sailkatzea, hiztegiaren erabiltzea, bokal bilduak : **oihukatu**, **leihoa**.

Gramatika : erranaldi motak : ezezkoa, harridurazkoa, galderazkoa.
Nori, norekin, noren : izenen jokatzeta.
Nori: aditzaren jokatzeta (dio, zion).
Atzizkiak : tsu, ari, zale, hitz familiak.

*Gai naiz :..... elkarrizketako irakurketa jarioaren segitzeko,
doinua emanez.
Baiezko, ezezko, harridurazko eta galderazko
erranaldien bereizteko.
Elkarrizketa motz baten idazteko, arauak kontuan
hartuz.*

5 - Bosgarren garaia : Testu informatibo baten irakurtzea maiatza arte 3/4aste

Irakurketak : animalia bati buruz, historiari buruz, ipuin zati baten ezagutzari buruz, artista bati buruz, aginduzko testu bat (errezeta), hiztegiaren orri bat.

Idazlana : hiztegian den hitz baten azalpena kopiatzea. Ordena kronologikoari jarraikiz kopiatzea, eskema baten araberrako aginduen idaztea, ipuin baten zatia berridaztea animalia aldatuz, argitaletxe bateko liburuen xerkatzea eta zerrendatzea. Gai jakin bati buruzko testu informatibo baten idaztea (animalia, errezeta, etab.).

Hiztegia : ariketako aginduan diren aditzak (inguratu, marratu, etab.), sinonimo, antonimo, baino, bezain.

Gramatika : konpletiboak : DELA, LA , kausazkoak : LAKO, BAIT, denborazkoa : DELARIK, DENEAN

*Gai naiz..... bakarrik irakurtzeko eta agindu baten ulertzeko.
Hiztegia edota testu batean argibide baten
xerkatzeko. Egitura kontuan hartuz, testu
informatibo motz baten idazteko.
Erranaldi konplexuagoen idazteko.*

6 – Seigarren garaia : Liburu oso baten irakurtzea
ekaina arte 3/4 aste

Irakurketa : lehenik liburu batzuen zatiak, pertsonaien, tokiaren eta denboraren identifikatzeko.
Euskal literaturako liburu baten hautatzea.

Idazlanak : ulermeneko lanak + 2 laburpenen artean hautatzea.
Egoera bat aldatuz, istorioaren asmatzea, segida eta bukaera baten asmatzea,
irakurri obren ondotik iritziaren ematea.

Hiztegia : hautatu testuen araberako lana (sinonimo, erran-nahiak hiztegian, etab.).

Gramatika aditza iraganean : eman zuen, ematen zuen. Aditzen jokatzeari : nuen, nion, nizkion, zidan (zautan), nien, nizkien. Orainalditik iraganera erranaldien idaztea. Erranaldi konpletiboak, kausazkoak, denborazkoak, erlatiboak.

*Gai naiz..... obra oso baten irakurtzeko, eta irakurriaren azaltzeko.
Testu narratibo motz baten idazteko, egitura eta sintaxia kontuan hartuz, eta erranaldi konplexuagoak erabiliz.*

CE 2 maila. Hirugarren urteko urraspidea 36 aste

Hirugarren urtetik, irakurketa/idazketa eta hizkuntzaren azterketa bereiz egiten dira.

Irakurketa/idazketako urraspidea 7 garaitan banatua da, **7 konpetentziaren**

arabera : garai bakoitzak konpetentzia nagusi bat.

Hizkuntzaren azterketa, aldiz, gaika banatua da:

- Perpausak
- Aditzak
- Ortografia/hiztegia/deklinabideak

Lehen garaia : Testuen konparatzea	3 aste
------------------------------------	--------

Gai bati buruz, testu mota desberdinak proposatzen dira :

Adib.: Zuhaitza

- Ipuin zati bat
- Olerki bat
- Komikiak
- Hiztegi orri bat
- Dokumentala
- Afixa

Lantzen diren konpetentziak :

- Ulermenaren lantzea.
- Testuak zer adierazten duen eta zertan baliatua den aztertzea.
- Zer liburu motatik heldu diren agertzea.
- Testuen arteko berdintasunen eta ezberdintasunen ateratzea.

Hiztegia : zuhaitzaren inguruko hiztegia.

Idazlanak : ariketak (Adib.: Zuhaitzari buruzko hitzen kopiatzea, fruituak ematen dituen zuhaitz bat hiztegian xerkatzea, deskribatzea, etab.)

Idatzizko ekoizpena : ipuin zatiaren segidaren idaztea.

Ahozkoa :

Gai naiz.....

gai baten inguruan, testu mota desberdinen identifikatzeko.

Bakoitzak zer funtzio duen ulertzeko.

Puntu komunak eta desberdinen identifikatzeko.

Bigarren garaia : testuen ulertzeko, testu baten elementuen aurkitzea
(4 aste, Omiatasaindu arte)

Euskarria : narrazioaren 4 zati desberdin (bat astean).

Narrazioaren zatiak irakurri eta, **lantzen diren konpetentziak:**

- Narratzailea nor den jakitea :
 - beraz, izendatzen duten hitzen xerkatzea.
- Pertsonaien identifikatzea :
 - beraz, izendatzen dituzten hitz guzien ezagutzea : izen arruntak, izen bereziak, izenordainak, izen-sintagmak.
Pertsonaiek egiten edo erraten dutena xerkatzea.
- Tokien identifikatzea :
 - beraz, tokien izenen xerkatzea.
- Istorioaren kronologiari ohartzea :
 - beraz, denbora adierazten duten hitzen xerkatzea.
Erranaldien arteko denborazko loturazko hitzak (lokailuak) ere.

Irakurketa bakoitzaren kasuan :

***Ulermen** galdeak eta ariketak

***Hiztegiaren** aberasteko ariketak

***Idazketako** ariketak irakurketari lotuak

* **Idatzizko ekoizpena** garaiaren bukaeran landu helburuen arabera.

***Ahozkoa**

*Gai naiz..... istorio baten narratzailearen
identifikatzeko.
Pertsonaien identifikatzeko.
Istorioaren denboraren eta tokiaren
ezagutzeko.
Kronologiaren ulertzeko.*

Hirugarren garaia : Komunikatzeko egoeren aurkitzea 6 aste
(Eguberri arte)

Euskarria :Komunikatze egoerako 6 testu hautatu, bat astean.

Komikia, antzerki zati bat, narrazioaren zatiak elkarriketekin, gutun bat.

Testuetan **lantzen diren konpetentziak** :

- Komunikatze egoerako elementuen identifikatzea :
 - nor mintzo den, nori zuzendua den.
- Noiz eta non iragaten den :
 - gutunaren egoeran, pertsonaiak urrun dira bata bertzearengandik.
Narrazioaren egoerako denboraren eta tokiaren aztertzea.
- Nola komunikatzen duten pertsonaiek :
 - zuzenki (antzerkia), burbuiletan (komikia), elkarriketa
(narrazioetan)
- Zertaz mintzo diren xerkatzea
- Zergatik mintzo diren ulertzea :
 - zerbaiten galdegiteko, sentimendu baten adierazteko, berrien hartzeko, ideien trukatzeko.

Irakurketa bakoitzaren kasuan

- **ulermen** ariketak, ahoz eta idatziz
- **hiztegiaren** aberasteko ariketak (elkarriketako aditzak...)
- **idazketa ariketak**, elkarriketako marken ikasteko
- **idatzizko ekoizpena** : (garaian bat edo bi)
- **ahozkoa**

Gai naiznor mintzo den eta norekin identifikatzeko.

*Pertsonaiek noiz eta non komunikatzen
duten jakiteko.*

Zertaz mintzo diren aurkitzeko.

*Zergatik eta nola komunikatzen duten
jakiteko.*

Elkarriketa baten idazteko.

Laugarren garaia : Narrazioaren egituraren ezagutzea 6/7 aste (Otsaileko oporrak arte)
--

Euskarria: 6 testu, zeinen artean haur literaturako zatiak (ohizko ipuinak, narrazioak), eta gertaera bati buruzko artikulak.

Garai horretan lantzen diren konpetentziak:

- Pertsonaiek egiten dutenaren ezagutzea :
 - haien ekintzen identifikatzea.
 - pertsonaien harat-honaten ezagutzea.
- Pertsonaien ekintzen arteko lotura logikoaren atzematea :
 - ekintzen zergatien eta ondorioen aztertzea.
- Istorioaren egituraren ulertzea :
 - istorioaren etapa desberdinen ezagutzea.
 - ordena kronologikoaren identifikatzea lokailuen bidez.

Testu bakoitzaren kasuan :

- **ulermen** ariketak, ahoz eta idatziz.
- **hiztegiaren** aberasteko ariketak (lokailuen erran nahia, ekintzak adierazten dituzten aditzak, etab.)
- **idazketako ariketak** : zati baten laburpena, segidaren asmatzea, denborazko lokailuen eta ondoriozko lokailuen erabiltzeko ariketak.
- **ahozkoa** : irakurketari buruzkoa.
- **idatzizko ekoizpena** : (garaian bat edo bi) orain arte ikasia dena erabiltzeko : elkarriketa, kronologia, pertsonaien ekintzak.

*Gai naiz..... pertsonaien ekintzen eta
mugimenduen identifikatzeko.
Ekintzen kronologiaren eta lotura
logikoaren ezagutzeko.*

Bosgarren garaia : Deskribapenen ezaugarrien ezagutzea 6 aste
(apirila arte)

Euskarria : 6 testu, zeinen artean narrazioak, ipuinetako zatiak, olerkia, artista bati buruzko testu bat.

Garai horretan lantzen diren konpetentziak :

- Testu batean deskribatua denaren identifikatzea :
 - > deskribatua dena xerkatzea : tokia (paisaia, eraikuntza, etab.), objektua, pertsonaia, irudimenezko tokia.
- Deskribapenaren elementu desberdinen ezagutzea :
 - > objektu, toki, pertsonaia batean deskribatua dena ikustea.
- Deskribapenean erabiltzen diren **hitzen** ezagutzea :
 - > izenondoak, atzizkiak (-tsu, garri...) adberbioak
- Konparaketaren ezaugarrien ezagutzea :
 - > konparaketen ezagutzea eta erabiltzea: -ago ...baino, bezain, bezain bat

Testu bakoitzari dagozkion ariketak:

- **ulermen** ariketak, ahoz eta idatziz
- **hiztegiaren** aberasteko ariketak (hitz familiak atzizkiekin, konparagailuak, etab.)
- **idazketako ariketak** : deskribapenak izenondoak eta konparaketak erabiliz.
- **ahozkoa** : irakurketari buruzkoa edo ikaslearen bizipenaren araberakoa.
- **idatzizko ekoizpena** : argazki baten, margo baten deskribatzea, ikasi dutenaren erabiltzeko.

Gai naiz..... deskribatua denaren ezagutzeko.

Xehetasunak ematen dituzten hitzen ezagutzeko eta erabiltzeko.

Konparaketen ezagutzeko eta erabiltzeko.

Seigarren garaia: Aginduzko testuen ezagutzea 4 aste, maiatza

Euskarria: 4 testu : geometriako testu bat, zientziako esperientzia baten egiteko testu bat, errezeta, narrazio zati egoki bat, etab.

Garai horretan lantzen diren konpetentziak:

- Testuko aginduak pertsonaia bati edo irakurleari emanak diren ezagutzea.
- Aditzen formak ezagutzea :
 - aginduzko formak, infinitiboa (ezarri, moztu, etab.)
- Ekintzen kronologiaren identifikatzea :
 - denborazko lokailuen ezagutzea eta erabiltzea.
- Objektu baten eraikitze fitxa baten idaztea :
 - ikasitakoa erabiltzea.

testu bakoitzari dagozkion ariketak

- **ulermen** ariketak, ahoz eta idatziz
- **hiztegiaren** aberasteko ariketak
- **idazketako ariketak** : testuen arabera ariketak : pertsonaiak aginduak ematen ditu, errezeta aberasten da, etab.
- **ahozkoa** : irakurketari buruzkoa edo ikaslearen bizipenaren arabera.
- **idatzizko ekoizpena**: Objektuaren, errezetaren, egiteko agindu fitxa egitea, kronologia eta aditz egokiak erabiliz.

<i>Gai naiz.....</i>	<i>-aginduak nori zuzenduak zaizkion identifikatzeko.</i>
	<i>Aginduzko aditzen ezagutzeko eta erabiltzeko.</i>
	<i>Ekintzen kronologiaren ezagutzeko eta erabiltzeko.</i>
	<i>Agindu fitxa baten idazteko.</i>

Zazpigarren garaia : Haur literaturako obra baten irakurtzea
4 aste, ekaina

Euskarria : Hautatu obra (liburu bat edo zatika eskuliburuan) Adib : ipuin bat.

Hautatu obraren arabera, **informazio testuak** gehitu.

(Adib : *Printzesa lotia* → gazteluak

Lantzen diren konpetentziak :

- Ipuin baten elementuen identifikatzea:
 - hastapeneko egoeraren identifikatzea : noiz, non, nor, zer egiten ari.
 - aldagaiaren identifikatzea, egoera aldatu eta lehen ekintza.
 - pertsonaien eginkizunen ezagutzea.
 - bukaera zein den jakitea eta ohartzea zer aldaketa den hastapeneko egoerarekiko.
- Ikasitakoaren erabiltzea ulermenean sartzeko.

testu edo zati bakoitzari dagozkion ariketak

- **ulermen** ariketak, ahoz eta idatziz
- **hiztegiaren** aberasteko ariketak
- **idazketako ariketak** : testuen arabekoak
- **ahozkoa** : irakurketari buruzkoa

Gelditzen dira 2 aste urtean zehar, bilanen eta ebaluazioen egiteko.

3. URTEKO GRAMATIKAKO URRASPIDEA

LEHEN HIRUHILA

Perpausak

Perpaus bakunak

Adierazpen perpausa

baiezkoak

ezezkoak : hitzen tokia, partitiboa

-ik, -rik

Harridurazko perpausa

- N Zein handia deN !

Galde perpausa

Puntuazioa . , : ! ? «...»

Aditzak

Aditz motak :

1 – NOR eta NORK

Ni etxera joan **naiz** (NOR)

Nik etxea garbitu **dut** (NORK)

2 – Aditz trinkoak eta aditz perifrastikoak

Aditz perifrastikoak: 2 hitz

- **aditz nagusia**: etor, etorri, etortzen, etorriko
- **aditz laguntzailea** : orainaldia, lehenaldia, alegiazkoa

Ortografia/hiztegia/ deklinabideak

ortografia :

- r, rr arauak :
hots arina, hots gogorra
- x/s, tx/ts zerrenda kokatzea

ordena alfabetikoa

- hitzen sailkatzea
- hiztegian xerkatzea

hiztegia

Gaiari buruzko hiztegia : sinonimoak, antonimoak.

BIGARREN HIRUHILA

Perpausen osagaiak

(ezagutzea eta izendatzea)

- **izena:**

→ arrunta : bizidun, bizigabe

→ berezia (maiuskula)

- **izenordaina** (ni, zuk, nehor, etab.)

- **determinatzaileak**

→ artikulua (a, ak, etab.)

→ erakusleak (hau, honek, etab.)

→ zenbatzailea (hiru, asko, **etab.**)

- **adjektiboak:** izenondoak (ederra)

- **adberbioak**

denbora : atzo, etab.

leku : hor, hemen, etab. + deklinatuak :

nondik : hemendik, hortik, handik

nora : hona, horra(t), hara, etab.

- **aditza** (trinkoa, perifrastikoa)

NOR NORI NORK

Forma errazenak:

lehenaldian, orainaldian :

diot, zion, dizkiot, zizkion

dizut, nizun, dizkizut, nizkizun

diet, nien dizkiet, nizkien

didate, zidaten, dizkidate, zizkidaten

didazu, zenidan, dizkidazu, zenizkidan

NOR NORK

nau, naute, ninduen, ninduten

zaitut, nauzu, zintudan, ninduzun.

ortografia

h zerrenda

a itsatsia (zerrenda eman)

hiztegia

Aditzondo bakunak (markarik gabe)

- aspaldi, atzo, etab. zerrenda ematea.
- hemen, hor, han

Aurkako juntagailuak :

- baina, aldiz, alta, haatik...

Hitzen osaketa :

hitz erroa + atzizkia

kasu arruntenak (beldur-ti, -garria, - rez)

- ri : sukaldari
- dun : dirudun
- tsu : menditsu
- -ti : beldurti

HIRUGARREN HIRUHILA

Perpaus nagusiak eta mendeko perpausak :

- perpaus osagarriak –LA
- DELA - DALA
- NIK ez....denik
- nintzen : nintzeLA
- kausazko perpausak :
- DELAKO , - BAIT

NORI NOR

kasu arruntenak :

zait, zaizkit, zitzaidan, zitzaizkidan
zaio, zaizkio, zitzaion, zitzaizkion

Deklinabideak

3 kasutan, 3 amaiera desberdinak

- bokala : seme, etxe
- kontsonante : mutil
- a itsatsia : neska

NORK

PARTITIBOA

NORI

NOREN

NOREKIN

ZEREZ, ZERTAZ

NON/NORA/NONDIK

NONGO

Taula eman

singularra	plurala
seme, etxe	
mutil , zuhaitz	
neska ikastola	

Ahozkotasuna : kasu arruntenak :

ez dut : eztut

ez dakit : eztakit

4. maila CM1 Urteko urraspidearen bizkarrezurra

Bi parte bereiz : - **Irakurketa-idazketa-ahozkoa**
 - **Hizkuntzaren azterketa**

Urtean zehar, 6/7 garai dira : **garai bakoitzean** irakurketa-idazketako gai bat lantzen da + hizkuntzaren azterketako elementuak.

1 – Hizkuntzaren azterketa (ikus ondotik)

2 – Irakurketa- idazketa-ahozkoa

36 aste : 7 garai : 7 gai, bakoitzari doazkion konpetentzien lantzeko

Lehen garaia : Testu baten ulertzeko elementuen aurkitzea
4 aste : iraila

Euskarria : 4 testu (eleberria, ipuina, eleberri fantastikoa, polizia eleberria).

Lantzen diren konpetentziak :

- istorio baten narratzailearen identifikatzea.
- narrazio baten denboraren eta tokiaren aurkitzea.
- pertsonaien identifikatzea.
- pertsonaien arteko loturen ulertzea.
- nork bere ikuspegiaren aurkeztea eta argumentatzea.

Testu bakoitzean :

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketako ariketak

Gai bakoitzean : ahozko adierazpeneko konpetentzia bat:

- nork bere ikuspegiaren aurkeztea eta argumentatzea.

Idatzizko ekoizpena :

- Testu baten segidaren, elkarrizketaren idaztea, argumentatzearen erabiltzeko.

Gai naiz narratzailea “ni” edo “hura” den ohartzeko.

Denbora eta tokiko informazioen hartzeko.

*Pertsonaien izen desberdinen ezagutzeko
(izenordeak, izen multzoak).*

*Gertaeren arteko loturen atzemateko,
lokailuen bidez.*

Bigarren garaia: Komunikatze egoeren aurkitzea 4 aste, Omiasaindu arte
--

Euskarria: 4 testu: komikia, antzerkia, olerkia, eleberria.

Lantzen diren kompetentziak:

- komunikatze egoera desberdinen identifikatzea (elkarrizketa, gutuna, bakarriketa, etab.).
- elkarrizketako elementuen ezagutzea: Nor, nori, noiz, non.
- pertsonaiak zergatik komunikatzen duten ulertzea.
- puntuazioak erakusten dituen sentimenduen ezagutzea.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko kompetentzia:

- doinu eta jario egokiarekin irakurtzea, ozenki.

Idatzizko ekoizpena :

- gutun baten idaztea, puntuazio egokia eta erranaldi ezberdinak erabiliz.

Gai naiz..... testu mota desberdinen ezaugarriez ohartzeko.

Bakarriketan eta elkarrizketan, pertsonaien ezagutzeko.

Noiz eta nola (berehala edo gutunen bidez) komunikatzen duten ohartzeko.

Zergatik komunikatzen den ulertzeko (sentimenduen agertzeko, laguntzaren galdegiteko, etab.).

Elkarrizketa beten idazteko, ezaugarriak eta idazketako legeak errespetatuz.

Hirugarren garaia : Narrazioen ezagutzea

6 aste, Eguberri arte

Euskarria: eleberriak, artikulak, olerkiak

Lantzen diren konpetentziak:

- pertsonaien, izenen eta izenordainen identifikatzea.
- pertsonaien harat-honaten ezagutzea.
- bakoitzaren ekintzen ezagutzea.
- ekintzen ordena kronologikoaren eta logikoaren ezagutzea (lokailuei esker).

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketako ariketak

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko konpetentzia:

- artista baten margo baten behaketatik, istorio baten kontatzea, sinonimoak eta lokailuak erabiliz.

Idatzizko ekoizpena :

- narrazio baten segidaren idaztea, aditzak iraganean ezarriz, lokailuak eta erranaldi desberdinak erabiliz.

Gai naiz..... pertsonaien izendatzeko hitzen atzemateko.

*Pertsonaien ekintzen izendatzeko aditzen
ezagutzeko.*

*Denborazko eta logikako lokailuei esker ekintzen
segidaz ohartzeko.*

Laugarren garaia: Deskribapenen ezagutzea eta idaztea

6 aste : Neguko oporrak arte

Euskarria: ipuina, dokumentala, eleberriak, olerkiak

Lantzen diren kompetentziak:

- deskribatua dena ezagutzea: pertsonaia bat, gertaera bat, toki bat.
- zehaztasunak ekartzen dituzten hitzen ezagutzea eta erabiltzea :
izenondoak, konparaketak.
- deskribapenaren antolaketaren ezagutzea : testu batean deskribapen
desberdinak direlarik.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak
- gehigarri batzuk (argazki, dokumentu, testuari buruz)

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko kompetentzia:

ahozko deskribapena argazki bati buruz.

Idatzizko ekoizpena :

zinemako afixa baten deskribatzea, ikasitako deskribapenaren ezaugarriak
erabiliz.

Gai naiz

deskribapenaren ezagutzeko testu batean.

Deskribapenaren elementuen identifikatzeko :

pertsonaia : desk fisikoa, morala

tokia : izenak, tokiko adberbioak, sentimenduak.

Hitz zehatzen ezagutzeko eta erabiltzeko :

izenak, sinonimoak, izenondoak, adberbioak, etab.

Deskribapen testu baten testuinguruaz ohartzeko.

Dokumentu baten deskribatzea gelan aurkezteko.

Deskribapen baten idaztea ikasitakoa erabiliz.

Bosgarren garaia: Aginduzko testuen ezagutzea

4 aste martxoa

Euskarria : entziklopedia, matematikako esku-liburua, eleberria

Lantzen diren kompetentziak:

- euskarri desberdinetako agindu moten ezagutzea.
- aditzen identifikatzea: erran-nahiak eta formak.
- ekintzen kronologiaren ezagutzea.
- eskemen, argazkien, irudien erabiltzea.
- aginduen funtzioaren ezagutzea : aholkua, agindu bat.
- nori zuzendua zaion jakitea.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak
- gehigarri batzuk (argazki, dokumentu testuari buruz)

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko kompetentzia :

- objektu baten eraikitzeke agindu baten ematea.

Idatzizko ekoizpena :

- aholkuak ematen dituen testu baten idaztea.

Gai naiz..... aditzak identifikatzeko.

*Denborako eta tokiko hitzen (lokailu, aditzondo)
ezagutzeko.*

Ilustrazioak erabiltzeko.

*Aginduen zergatien ulertzeko : manamendu,
aholku, objektu baten eraikuntza.*

Seigarren garaia : Azalpen testuen ezagutzea 4 aste apirila/maiatza

Euskarria: dokumentala, entziklopedia, artikulak

Lantzen diren kompetentziak:

- dokumentu baten orriaren antolaketaren ezagutzea: izenburua, paragrafoen izenburuak, marrazki eta argazkien legendak.
- ideia nagusiaren atzematea.
- gaiaren hiztegi bereziaren ezagutzea eta erabiltzea.
- zergatiaren eta ondorioaren arteko lotuen ezagutzea.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketako ariketak

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko kompetentzia :

- dokumentu desberdinak hartuz, teknika baten garapenaren azaltzea (trena, hegazkina, etab.).

Idatzizko ekoizpena :

- dokumentu baten idaztea, liburuetan edota interneten argazkiak eta informazioak xerkatuz.

Gai naiz..... dokumentu baten tituluaren, paragrafoen, legenden eta ilustrazioen ezagutzeko.

Idea nagusiaren atzemateko.

Hiztegi bereziaren ulertzeko.

Dokumentu baten idazteko, ikasitako ezaugarriak erabiliz.

Zazpigarren garaia : eleberri baten osoki irakurtzea 4/5 aste maiatza/ekaina
--

Euskarria: eleberri bat.

Lantzen diren konpetentziak:

- obra baten osoki irakurtzea eta ulertzea.
- eleberri baten ezaugarrien identifikatzea : pertsonaiak, tokia, denbora, ekintzen kronologia, etab.
- landu konpetentzien berrerabiltzea.
- ikasgelan aurkezpen lan baten presentatzea.

Zati bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko konpetentzia :

- idazle bati buruzko aurkezpen lanaren prestatzea eta gelan aurkeztea.

Idatzizko ekoizpena

- narrazio baten idaztea ikasitakoa erabiliz.

4 aste gelditzen dira, urtean banatzeko beharraren arabera, eta bilanak eta ebaluazioak egiteko.

LAUGARREN URTEKO GRAMATIKAKO URTEKO URRASPIDEA

Lehen hiruhila

Gramatika

1 – Perpausak

3. urteko berrikusketak

Adierazpen perpausak

- baiezkoak
- ezezkoak
- harridura perpausa
- galdera perpausa
- puntuazio ikurrak : , ? !

Manu (aginte) perpausak

- baiezkoak (hitzen ordena) :
« zoaz pikutara ! »
- ezezkoak « ez ezazula negarRIK
egin ! »

Perpaus konpletiboak

- baiezkoak: -LA
- ezezkoak: - NIK “Ez dut uste etorriko
denIK”

Zeharkako galderak: - N

- “Xerka ezazu zenbat den”
- “Entzun duzu zer gertatu zaion ?”

Aditzak

1 - Komuntadura arauak

NOR: subjektua/aditza/atributua


“Haurra galdua da. Haurrak galduak dira.”

NORK : “Haurrak sagar bat jan du.

Haurrek sagarrak jan dituzte. »

2 – Bi aditz motak :

Aditz perifrastikoa : 2 zati ditu



aspektua erakusten du :

etor	orainaldia
etorri	lehenaldia
etortzen	alegiatzkoa (banu...nake)
etorriko	

3 -NOR-NORI-NORK indikatiboan

3. urteko berrikusketa : forma errazenak

forma guziak: oraina/iragana
singularra/ plurala

4 – Aditz trinkoak

joan – etorri: oraina- iragana pertsona guziak

Hiztegia / ortografia

1 -Ordena alfabetikoaren berrikusketa

sailkatu, hiztegian xerkatu

2 – Gaiaren arabeko hiztegia: sinonimoak, antonimoak, homonimoak, Hegoa eta iparraldeko hitzak.

3 – Itxurazko zentzua (esaera zaharrekin)

4 – Aditzondoak:

Denborazkoak: atzo, gaur, bihar, etzi,
lehen, orai, gero, aspaldi, iaz, maiz, usu, sari,
behin, sekulan, egun, barda, agudo....
-ki: laburki.... (zerrenda eman)
- ik : alferrik, bizirik, xutik, soilik...
(zerrenda eman)

5 - Ahoskera

Ez dakit :eztakit
Ez naiz : enaiz
ez gara: ezkara

2 – Perpausen osagaiak

Berrikusketa: izen sintagma eta aditz sintagma

bereiztea, izena eta adjektiboa.

izenordaina: zer den jakitea:

“gu, ni, norbait, nehor...”

bere/haren

elkar, elkarren, elkarri

Determinatzaileak: erakusleak

kasu erabilienak:

hau, hori, hura

honek, horrek, hark

honi, horri,,hari

6 – Elkarketa batzuk:

- etxez-etxe- beldurraren beldurrez
- zabal- zabalik
- zehatz-mehatz

7 – Ortografia :

s/x

- es +kontsonantea: espiritu
- rts, nts, lts: bertso, defentsa, poltsa

h duten hitzak

Bigarren hiruhila

1 – Perpausak

- Helburu perpausak:

zertara: egitera

zertarako: egiteko.

- Kausazko perpausak:

- LAKO

- BAIT (ortog legeak)

- ETA

- Erlatibozko perpausak

- N

- Konparaziozko perpausak

- N : Baina.....ago

Uste nuen baina errazago da.

- N baina..gehiago, gutiago

2 - Perpausen osagaiak

- adjektiboak: izenlagunak:

-ren deklinabidea sing/plurala

-ko deklinabidea sing/plurala

-ezko: zurezko

- aditzondo deklinatuak; lekuzkoak:

hemendik, honat, harat, honaino....

moduzko aditzondoak:

KA atzaparka

- KI : zehazki

NOR – NORK

forma guziak : oraina/iragana

nauzu....gaituzu

ninduzun....gintuzun

2 aditz trinko: ekarri – jakin

oraina/ iragana

irudi: forma errazenak:

dirudi zirudien.

Atzizkiak

Izenondo berriak osatzea

-dun (3.urteko berrikusketa)

-tar, -ti, -tsu , -gaitz -garri

Aurizkiak

berrikusi, arrakopiatu...

konparazioak

- baino...ago

- bezain, bezain bat

- egi

- ik...ena (munduko neskarik politena)

Deklinabidea: mugagabea

- forma erabilienak: eguzki, ilargi, esker,
eskuin: “eguzkitan, ezkerretara....”

- elur, euri, ur: uretan

- lo, amets: ametsetan.

Hirugarren hiruhila

1 – Perpausak

Denborazko perpausak

- NEAN
- LARIK

Aurrekotasuna

- baino.....lehen (ago)
- aurretik, aitzin
- ikusi orduko
- -n bitartean

Perpaus kontzesiboak:

- ARREN
- NAHIZ ETA

Nahiz eta ez den gaztelua

ZERTAN

- ikasten hasi
- ikusten ari
- egiten usatua
- hilarena egin

NOR – NORI

Indikatiboa, 3. pertsona orain eta lehenaldian:

zait – zaizkit- zitzaidan – zitzazkidan

zaizu, zaio, zaigu, zaie

Aditz lokuzioa

IZAN

NOR

- bizi izan
- ari izan
- falta izan

NORK

- nahi izan
- behar izan
- balio izan
- espero izan

izan aspektua: izan, izaten, izango.

Aditz jokatugabeak

Aditz izenak:

ZER

- tea, tzea

erraita aiantzi dut.

- tik

ni nardatzetik ez da gelditzen.

Deklinabideak: bizidunak

- NON: gan
- RA: gana
- RIK : gandik
- NORANTZ: ganatz

- **izen bereziak :**

- NOREN :
- Josu-REN
- Txomin-EN

Gaiaren arabeko hiztegia

- sinonimoak
- homonimoak
- antonimoak
- itxurazko zentzua

Juntagailuak

- edo/ala
- ez bakarrik.....ere
- alde batetik....bestera
- baina
- baizik,
- haatik, alta

LEXIKOA : hego/iparraldea

5. maila CM2 Urteko urraspidearen bizkarrezurra

Bi parte bereiz : - **irakurketa-idazketa-ahozkoa**
 - **hizkuntzaren azterketa**

Urtean zehar, 6/7 garai dira : **garai bakoitzean** irakurketa-idazketako gai bat lantzen da + hizkuntzaren azterketako elementuak.

1 – Hizkuntzaren azterketa

(ikus ondotik)

2 – Irakurketa- idazketa-ahozkoa

36 aste : 7 garai : 7 gai, bakoitzari doazkion konpetentzien lantzeko

Lehen garaia : Testu baten ulertzeko elementuen aurkitzea
4 aste: iraila

Euskarria: 4 testu (eleberria, ipuina, eleberri fantastikoa, polizia eleberria)

Lantzen diren konpetentziak:

- **istorio baten narratzailearen identifikatzea**
 - Lehen pertsona baldin bada: “ni-nik” narratzailea barne da.
 - 3.garren pertsonan: “ hark-hura” istoriotik kanpo da.
- **narrazio baten denboraren eta tokiaren aurkitzea**
 - Testuan informazioen xerkatzea, eta informazioen artean lotura elementu batzuen asmatzea.
- **pertsonaien identifikatzea**
 - Izendatzen dituzten hitzen xerkatzea: erakusleak, izenordainak, izenak.
 - sentimenduen identifikatzea.
 - istorioko pertsonaiak eta istorioan aipatzen direnak bereiztea.
- **ekintzen segida logikoaren ezagutzea**
 - Erranaldien lokailuen (ondotik, beraz, etab.) edota menpeko perpausen menderagailuen (...delako, ...delarik, etab.) xerkatzea.
- **nork bere ikuspegiaren aurkeztea eta argumentatzea**
- **testu baten segidaren idaztea**

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean : ahozko adierazpeneko konpetentzia bat :

- nork bere hautuen eta ikuspegiaren argumentatzea : eman dezagun liburu baten hautatzea, eta argumentatzea liburu hori ikasleek irakur dezaten edo ez.

Idatzizko ekoizpena :

- testu baten segidaren, elkarrizketaren idaztea, argumentazioa erabiltzeko.

Bigarren garaia: Komunikatze egoeren aurkitzea

4 aste, Omasaindu arte

Euskarria: 4 testu: komikia, antzerkia, olerkia, eleberria.

Lantzen diren konpetentziak:

- **komunikatze egoera desberdinen identifikatzea (elkarrizketa, gutuna, bakarriketa, etab.)**
 - Ikur desberdinen ezagutzea: marratxoak, burbuilak, antzerkian nor mintzo den.
 - Erran aditzaren sinonimoei ohartzea, egoera adierazten baitute (galdekatu, azaldu, murmurikatu, xuxurlatu, etab.).
- **elkarrizketako elementuen ezagutzea: Nor, nori, noiz, non**
 - Erakusleen identifikatzea. Aditz jotatzeen ezagutzari esker pertsonaien identifikatzea (erran **dizut** , oihukatu **zioten**).
 - Denboraren eta tokiaren ezagutzea, elkarrizketetan, komikietan.
- **pertsonaiak zergatik komunikatzen duten ulertzea**
- **puntuazioak erakusten dituen sentimenduen ezagutzea**
 - Haridura, beldurra, zoriona, etab.

Testu bakoitzean :

- irakurketa/ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean: ahozko adierazpeneko konpetentzia :

- doinu eta jario egokiarekin irakurtzea, ozenki.

Idatzizko ekoizpena :

- gutun baten idaztea, puntuazio egokia eta erranaldi ezberdinak erabiliz.

Hirugarren garaia : Narrazioen ezagutzea

6 aste, Eguberri arte

Euskarria: eleberriak, artikulak, olerkiak, ipuin fantastikoak

Lantzen diren konpetentziak:

- **pertsonaien identifikatzea**
 - > Istorioan direnak eta istorioan aipatuak direnak.
- **pertsonaien harat-honatekoen ezagutzea**
- **bakoitzaren ekintzen ezagutzea**
 - > Bakoitzak zer egiten duen eta zergatik.
- **ekintzen ordena kronologiko eta logikoaren ezagutzea (lokailuei esker)**
 - > kronologia: denborazko lokailuen ezagutzea eta erabiltzea.
 - > logika: beraz, -delako
 - > pertsonaien intentzioari lotutakoa: beldur da beraz ihes egiten du.

Testu bakoitzean:

- Irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean ahozko adierazpeneko konpetentzia:

- argazki baten behaketatik, istorio baten kontatzea, lokailuak erabiliz segida logikoaren erakusteko.

Idatzizko ekoizpena :

- testu bat eman eredu gisa, edo segidaren asmatzeko.
- narrazio baten idaztea, aditzak orainaldian, lokailuak eta erranaldi desberdinak erabiliz.

Laugarren garaia: Deskribapenen ezagutzea eta idaztea

6 aste : Neguko oporrak arte

Euskarria: ipuina, dokumentala, eleberriak, olerkiak

Lantzen diren konpetentziak:

- **deskribatua denaren identifikatzea**
 - > Pertsonaia bat, gertaera bat, toki bat.
- **zehaztasunak ekartzen dituzten hitzen ezagutzea eta erabiltzea**
 - > Izenondoak, atzizkiak, noren, nongo, zerezko deklinabideak (paperezko itsasontzia, Peioren garabia, Baionako eliza, etab.).
 - > Konparaketak: -ago...baino, bezain, bezain bat, -ena.
- **deskribapenaren antolaketaren ezagutzea**
 - > Egoera (tokia, pertsonaia, objektua, etab.) orokor batetik, elementu batzuen deskribapen zehatzen ezagutzea.
 - > Dokumental bateko deskribapen zientifikoa (animalia bat adibidez).
- **deskribapen literarioen eta zientifikoen arteko ezberdintasunen ezagutzea**

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak
- gehigarri batzuk (argazki, dokumentu testuari buruz)

Gai bakoitzean ahozko adierazpeneko konpetentzia:

obra artistiko bati buruz (eskultura, margoa, etab.) ahozko deskribapena.

Idatzizko ekoizpena :

argazki edo margo baten deskribatzea, ikasi deskribapenaren ezaugarriak erabiliz.

Bosgarren garaia: Azalpen testuak ezagutzea

4 aste martxoa

Euskarria: dokumentala, entziklopedia, prentsako artikuluak

Lantzen diren konpetentziak:

- **dokumentu baten orriaren antolaketaren ezagutzea**
 - Orrialde osoa begiztatuz, izenburuaren, paragrafoen izenburuen, argazkien edota irudien xerkatzea.
- **Idea nagusiaren atzematea**
 - Paragrafo bakoitzaren ideia nagusiaren atzemateko, laburpen ttipi edo erranaldi bat idaztea.
 - Argazkiz edota irudiez laguntzea.
- **Gaiaren hiztegi berezia ezagutzea eta erabiltzea**
- **Azalpenak egitea ahoz eta idatziz**
 - Gaiari buruz dokumentazioa xerkatu liburuetan edo interneten (testuak eta irudiak), titulua bat eman, paragrafoak egin.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Gai bakoitzean ahozko adierazpeneko konpetentzia :

- dokumentu batzuk gai berdinari buruz hautatzea, eta azalpena egitea hari bati jarraikiz (aurkezpena, desberdintasunak eta berdintasunak, etab.)

Idatzizko ekoizpena

- Dokumentu baten idaztea, liburuetan edota interneten argazkiak eta informazioak xerkatuz.
- Gelan, beste ikasleen aitzinean aurkeztea, hizkuntzaren heina eta jarioa zainduz..

Seigarren garaia: Olerkien irakurtzea

4 aste: apirila/ maiatza

Euskarria : olerkiak, alegiak, bertsoak

Lantzen diren konpetentziak :

- **testu poetikoen ezaugarrien ezagutzea**
 - > Testu poetiko moten ezagutzea : olerkiak, bertsoak, alegiak.
 - > Bakoitzaren kasuan, forma, errimak, hitzen hotsa, errepikapenak identifikatzea.
- **olerkarien eta bertsolarien ezagutzea**
 - > Idazleei buruzko xehetasunen xerkatzea:
haien bizia eta bizi ziren garaiko gertaera kultural eta historikoen aztertzea.
- **olerkien, alegien, bertsoen ulertzea**
 - > Hitzekin jostatzen dela ulertzea.
 - > Errealitatea beste gisa batez adierazten dela ulertzea.
 - > Sentimenduak eta erakaspen batzuk adierazten direla ulertzea.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazketa ariketak

Ahozko adierazpena

- Doinuaren eta jarioaren lantzeko ahozko ariketak.
- Zati batzuen ikastea.

Idatzizko ekoizpena

Bertsolari edo olerkari bat hautatzea, ikertzea eta bere gisako bertso edo olerkiaren ekoiztea.

Zazpigarren garaia: antzerki obra oso baten aurkitzea eta irakurtzea 4 aste: maiatza/ekaina

Euskarria: antzerkiak, dokumentala

Lantzen diren kompetentziak :

- **antzerkiko obra oso baten irakurtzea eta ulertzea**
 - > Elkarrizketak nagusi direla jakitea.
 - > Pertsonaien izenak hitzartzearen aitzinean idatziak direla jakitea.
 - > Antzerkiko egoeretako didaskalien ezagutzea : tokiaz eta aktoreen jokoaz xehetasunak ematen dituzte.
 - > Pertsonaiek zergatik komunikatzen dute ulertzea eta zerk erakusten duen xerkatzea.
- **azalpen lan baten aurkeztea**
 - > Historian barna, antzerki mota batzuk hautatzea (antzerki greziarra, Erdi Aroan, XVII. Mendean, etab.)
 - > Edo : antzokiak
 - > Edo : gaur egungo antzerki mota desberdinak: festibalak, karrikako antzerkiak, etab.

Testu bakoitzean:

- irakurketa / ulermen ariketak
- hiztegia
- idazlanak

Proiektua : antzerki baten prestatzea ikusgarri batean aurkezteko.

Gelditzen diren 4 astetan:

- gai bat luzatzeko posibilitatea
- ebaluazioak, urteko bilanak
- beste (ikusgarri, ateraldi, etab.)

BOSGARREN URTEKO GRAMATIKAKO URTEKO URRASPIDEA

Lehen hiruhila

PERPAUSAK

Alborakuntzaz, juntaduraz, menderakuntzaz
eraiki perpausen ezagutzea eta artikulazioen
erabilpenaren segurtatzea: puntazioa,
juntagailua, menderagailua.

Helburuzko perpausak

Berrikusketa

- Zertara, zertarako
 - Etortzeko asmotan, etortzekotan
- kasuak

Kausazko perpausak

Berrikusketa

- -lako, -bait, -eta
- -t (z) eagatik(hitzegiteagatik...)

Denborazko perpausak

Afaldu -ondotik - bezain laster

ADITZAK

Berrikusketak

- nor zer, nori nork
- ariketak, zer pluralean
- nor nork
 - nor nori

Ahalera

- nor : oraina naiteke
- iragana : nintekeen
- nor nork : oraina : dezaket, ditzaket
- iragana : nezakeen, nitzakeen
- nor nori nork
- forma errexenak:
- diezaioket, niezaiokeen, etab.

HIZTEGIA

Aurrizkiak

- BER : berregin
- DES: desberdin
- AURRE : aurrekontu
- AZPI : azpimarratu
- GAIN : gainaldean

Atzizkiak:

- KUME
- KIDE
- ORDE
- GIZON : legegizon, plazagizon
- EZIN : sinestezina

Gaiaren arabera hiztegia

- sinonimoak, antonimoak, homonimoak, itxurazko zentzua.

Bigarren hiruhila

PERPAUSAK

Baldintzazko perpausak

- Baldin ba
- -kotan: egitekotan
- ezik: ulertu ezik.

Perpausen osagaiak

- determinatzaileak:

artikulua: -a -ak

bat, batzuk

a itsatsia: ikastola

- adjektiboa: izenlaguna

- zerezko: plastikozko botila

- ber marka: bera, bide beretik, etxe

berean, irakasle berarekin

- Leku adverbioak:

NON: hemen, hor, han

NONDIK: hemendik, hortik, handik

NORA....taula eman.

ADITZAK

Ahalera

Etor naiteke: etortzen ahal naiz

Egin dezaket : egiten ahal dut

Egin diezaioket : egiten ahal diot

Aditz trinkoak:

Eraman, irudi

oraina/iragana: pertsona guziak

Baldintza

- Ez alegiazkoak

baldintza

ondorioa

Jonek baldin **badu** berea da.

Etortzen **baldin banaiz** egingen dut

Etorri **banintz** egingen nuen

- Alegiazkoak

baldintza

ondorioa

banintz.....nintzateke

banu.....nuke, nituzke

HIZTEGIA

- BETE : baso bete ur
- ORO : xehetasun oro, ororen gainetik
- BERRI : etorri berria, zerbait berri.

Gaiaren arabeko hiztegia :

- sinonimoak
- antonimoak
- homonimoak
- itxurazko zentzua
- famili bereko hitzak
- testuinguraren arabera

Hiztegiaren (numerikoa ere) erabiltzea

- erran-nahiaren bilatzeko
- ortografiaren segurtatzeko

Hirugarren hiruhila

PERPAUSAK

Perpausen osagaiak

Adberbioak :

Galdetzaileetarik datozen adberbioak :

zerbait	edozer	zernahi
norbait	edonor	nornahi
noraitek	edonork	nornahik
nunbait	edonon	nonahi

Postposizioak

- NOR eskaintzen dutenak :

(ik) gakorik gabe

- NOREN :

gainean/azpian : teiltu**aren** gainean

xerka/bila

ondoan

alde/kontra

artean, bidez

- NORI : buruz, esker

lagun**ari** esker

ADITZAK

Subjonktiboa

Forma errazenak

- nahi dut : etor dadin
egin dezan

Aditz arazlea :

ARAZI :

igoarazi

etorrarazi

ekarrarazi

HIZTEGIA

Lexikoa :

Iparralde/Hegoalde

Ahoskera

« bakia » bakea

« etxian » etxean

- Gaiaren araberako hiztegia

- Hiztegia erabiltzea

- Hiztegi numerikoa